

Osteguna, 2012ko abenduaren 20a

**DONOSTIAKO**

# URTEKARIA 2012

IRUTXULOKO **hitza** info

- II Murrizketen aurka hiru greba egun egin dituzte
- III Atotxan eraikiko dute autobus geltokia
- VII Ehun urte bete ditu Viktoria Eugeniak
- XII Entrenatzaile berria du Donostiarrak



**Dolua**

**Agur eta ohore, Txillardegi VI**

Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, 2005.eko irudi batean. ALBERTO ELOSEGI / IRUTXULO



ZURRIOLA IKASTOLA I.K.E.

*Guztiok, guztiona guztiontzat*

Gros auzoko ikastola

HH, LH, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

**Zorionak eta urte berri on!!**

# Kaleak hartu dituzte herritarrek

Donostiarrak ez dira kikildu, langileen eskubideen alde eta murrizketen aurka protesta egiteko garaian; egoera ekonomiko zailak egunerokoa baldintzatu du, baina krisitik haragoko albisteak ere ekarri ditu 2012ak.



Martxoaren 29an egindako manifestazioa. MIKEL GOÑI

## ↓ Lana

## Hiru greba egun egin dituzte zazpi hilabeteko epean

### Aritz Sorzabal

2012ko martxoaren 29a denbora luzez izango dute gogoan herritarrek eta sindikatuek. Izan ere, lan erreformaren aurka egindako greba orokorrak ia erabateko jarraipena izan zuen hiriko auzoetan. Sindikatu guztiek egin zuten bat protesta egunarekin, eta horrek Donostiaren eguneroko jarduna gelditzea ekarri zuen.

«Historikotzat» eta «arrakasta handikoa» jo zuten greba, baita eguerdian egindako manifestazioa ere. Hain zuzen ere, hiriko kaleak «lan murrizketekin» bat ez datozen milaka lagunek bete zituzten.

Denda, taberna eta enpresez gain, erakundeek ere egin zuten

greba. Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, esaterako, bat egin zuten lan uzteekin. Ondorioz, gutxieneko zerbitzuak besterik ez dituzte eman. Udala eta Aldundiarekin batera, Donostia Ospitalea hirian langile gehien biltzen dituen gunea da. Grebak eragin handia izan zuen bertan.

### Irailean berriro

Martxoaren 29an gertatu bezala, irailaren 26ko greba egunak eragin handia izan zuen hainbat auzo eta zerbitzutan. ELA, LAB, CNT, ESK, STEE-EILAS, CGT, EHNE eta HIRU sindikatuek deituta, urteko bigarren greba orokorra izan zen sei hilabeteko epean Hego Euskal Herrian. Martxoaren 29ko greba sindikatu guztiek deitu zu-

ten; irailekoa, euskal gehiengo sindikalak.

Sei hilabete lehenago gertatu bezala, grebak eragin handia izan zuen Donostian; aurrekoa bezain beste eraginik ez zuen izan agian, baina protesta eguna garrantzitsua izan zen era berean. Piketeak goizean goizetik ibili ziren hiriko kaleetan eta industriaguneetan barrena, eta poliziaren presentzia nabarmena izan zen. Martuteneko 27 poligonoan, sarbidea pnetumatikoekin eta hondakinekin oztopatu zuten langileek, Ertzaintzak barrikadak errepidetik kendu zituen arte.

Martxoan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek bat egin zuten grebarekin; Donostia-

ko Udalekoek, aldiz, batzuek bakarrik. PSE-EE, PP eta EAJko zinegotziak egun arrunta izango balitz bezala aritu ziren lanean; Bildukoek, bere aldetik, greba egin zuten.

Oposizioko taldeek ez zuten aukera pasatzen utzi eta udal gobernu kritikatu zuten, hiriko agintariak izanik, greba ezin dutela egin esanez. Udalean, mugimendua egon arren, ez zeuden bulego eta zerbitzu guztiak irekita.

Greba irailaren bukaeran izanik, Zinemaldiarekin bat egin zuen. Jaialdia ia guztiz gelditu zuten, Sail Ofiziala izan ezik, baina horri ere eragin zion grebak. Hainbat aktore ezagunek ere protesta egin zuten murrizketen aurka. Kursoan aurrean bilduta, bat egin zuten grebarekin, *Murrizketa gu-*

*tziago, kultura gehiago* irakur zitekeen elastikoak jantzita.

Aktoreek Saguesetik zetorren manifestazioa iritsi arte itxaron zuten bertan eta, manifestazioa aurretik pasa zenean, txalo batzuk entzun ahal izan ziren. Ondoren, beraiek ere, bat egin zuten martxarekin.

### Urrian ere

Bestalde, urriaren 14ean, zazpi hilabeteko epean egondako hirugarren greba egunari egokitu zitzaion txanda; kasu honetan, CCOO eta UGTk deituta, besteak beste. Greba egun honek ez zuen beste biek izandako eragina eduki, euskal gehiengo sindikalak bat egin ez zuelako protestarekin.

✉ asorzabal@hitza.info



**Talleres HAIZEA, s.l.**

KONPRESOREEN ALOKAIRU, SALMENTA ETA KONPONKETAK



[www.tallerashaizea.com](http://www.tallerashaizea.com)





Parte Zaharrea egindako batzarretako bat. SORTU

## ↓ Politika

# Sortu lanean da

Ezker abertzalea hamar urtez legez kanpo egon ostean, Sortu ekainean lortu zuen legez-kotasuna. Alderdi politikoak Sortzaile prozesuari ekin dio orain, auzoz auzo batzarrak egin eta eztabaiden bidez ekarpenak jasotzeko, beti ere alderdiaren oinarriak finkatzeko.

Lehen bileren erantzuna «bikaina» izan dela nabarmendu

dute Sortuko kideek. «Batzarren edukiei dagokienez, luze aritu ginen; Sorturen definizioa zehazten, baita antolakunde berriaren oinarri ideologikoen inguruan hausnartzen ere. Sozialismoa, independentzia, feminismoa, internazionalismoa, ekologia, euskara edota parte hartzea bezalako kontzeptu sakonen gainean aritu ginen ezta-

baidan. Benetan aberasgarria», azaldu dute alderdi independentistako lagunek.

Prozesua osatzeko beste bi bilera egiteko gelditzen dira Donostian; urtarrilaren 26an eta otsailaren 9an. Herritarrekin bilera horiek guztiak egin ostean, prozesu guztia otsailaren 23an bukatuko dute, Sorturen lehengo nazio biltzarrekin.

Bileren aurretik, 1.600 txosten banatu zituzten, eta auzo bakoitzean sortzaile prozesuaren talde sustatzaileak lanean ari dira.



Topoaren lanak, Herreran, geltokia inauguratu aurretik. UDALA

## ↓ Donostialdeko Metroa

# Obren eragina salatu du udalak

Topoaren lanek Erdialdean eta Antiguako «kaosa» eragingo dute la salatu du udal gobernuak. Eusko Trenbide Sareak Donostialdeko Metroa izenekoa eraikitzeke obrei buruzko erabakiak bere kabuz hartu dituela kritikatu dute. «Horrelako eragina duten proiektuek elkarlana eta adostasuna behar dute», esan dute Bilduko ordezkariak. Kale mozketak eta garaio publikoan galerak iragarri

dituzte, Eusko Jaurlaritzak udal gobernuari dagozkion neurriak hartu dituelako.

Larriki baloratu dute Matia kalearen kasua. Izan ere, 8 hilabetez itxita egongo da. Lanek irauten duten artean, Erdialdeko eta Antiguako hainbat kale moztuta edo murriztuta egongo dira. «Domino efektu bat» gertatuko dela aurreratatu dute, hiri osoan eragina izango duena. Besteak

beste, Kontxako hiribideak edo Zarautz hiribideak hiru urtez bide bakarrarekin izango direla azaldu dute, edota San Martin kalea urtebetez itxita izango dela. «Nork ordainduko du Kontxako aparkalekura sarbideak kentzeak eragingo duen galera ekonomikoa, edota Dbusen aldaketan ondorioz emango direnak?», galdetu dute udal gobernu kideek.

## ↓ Autobus geltokia

# Atotxan eraikiko dute azkenean

Udal gobernuaren asmoen kontra, Loiolako Erriberan ez dute autobus geltokia egingo, Atotxan baizik. Udaltzarrean eztabaida bizia izan eta gero, horrela erabaki zuten irailean.

Urtea amaitzeko atarian, Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi ordezkari Ricardo Burutarnek azaldu zuen hainbat gauza falta direla lanekin hasteko, baina gehienak abian daudela eta maiatzerako lanak hastea aurrei-

kusi dutela. Lanak egiten dituzten artean eragingo dituzten kalteak neurtu behar dituzte. Horretarako, jada abian dago ingurumenaren eragin txostena. Hori burutu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emaitzak onartzen dituzten, lanak hasteko prest egongo liritekeela esan zuen.

Txostena aurkezteko epea urtarrilean amaitzen da. Ondoren, txosten hori ikertzeko Aldundiak apirila arteko epea izango

du. Behin erantzun positiboa emanda, lanak hasiko liriteke. Baietza izatea espero dute; «alderdi erantzuna jasotzeko arazorik ez dugu ikusten», esan zuen Burutarnek.

Lanak maiatzean hastea espero dute eta 24 hilabeteko iraupena izatea aurreikusi dutela adierazi zuen zinegotziak; «bi hamar-kada zain pasa ostean, 2016rako autobus geltokia bukatuta egongo da», esan zuen.



Egungo autobus geltokia. MIKEL GOÑI

**brintza**

- ▼ LAN AHOLKULARITZA
- ▼ AHOLKULARITZA FISKALA
- ▼ INBERTSIOAK
- ▼ ASEGURUOK

JUAN DE URBIETA, 15 HERNANI  
TEL.: 943 33 12 67 FAXA: 943 33 08 92  
HARRIBERRI, 9 ALTZA (DONOSTIA)  
TEL./FAXA: 943 35 27 94

**TETUAN TABERNA**  
BAZKARIAK ETA AFARIAK

Karmengo Ama, 32 B - EGIA Tel.: 943 279 796

**BELFAST**  
Irish Tavern

Ikatz kalea, 9 • Tel.: 943 42 01 12 • Donostia

**kopy leku**

- ✓ KOPIAGAILUAK
- ✓ FAXA
- ✓ KOADERNATZAILEAK
- ✓ GILOTINAK
- ✓ PLASTIFIKAGAILUAK
- ✓ ERROTULADORE ELEKTRIKOAK

Serapio Mujika 20  
Tel.: 943-39 91 57 / Faxa: 943-40 08 07 • kopyleku@kopyleku.com - 20016 DONOSTIA

**Oliyos**  
Taberna-Jatetxea

Josetxo Jrurtia

Erregeazainen kafetx, 4 - DONOSTIA TEL.: 943 21 49 89

↓ Mugikortasuna

# Enpresa guneetan TAOa kenduko dute

PSE-EEren azken legegintzaldian ika-mika handia sortu zen TAOarekin, Odon Elorzak buru zuen udal gobernua enpresa guneetan aparkatze sistema arautua luzatzearen aldekoa baitzen. Bada, urtebeteko bileren ostean, Igara, Miramon eta Zuatzun TAO sistema kentzea adostu zuten azaroako udalbatzarrean. Bil-

duk, EAJk eta PPK bat egin zuten neurriarekin; PSE-EEK, ordea, abstentzioaren alde egin zuen.

Hiri Azpiegitura eta Zerbitzuetako zinegotzi Nora Galparsorok PSE-EEren jarrera kritikatu zuen. «Harritzekoa da TAOa defendatzen zuten horiek txintik ez esatea», adierazi zuen Ernesto Gascok buru duen taldeari zuzenduta.

Hain zuzen ere, Bilduk, EAJk eta PPK erabakia hartu zuten eguna garrantzitsutzat jo zuten; PSE-EE, ordea, adostutako proposamenak abantailak dituela onartu arren, zenbait gabezi dituela esatera mugatu zen. Mugikortasun zinegotzi Jon Albizuk azaldu zuen udal arautegi berri bat egin dutela egoiliar eta langileen mesedetan. Bildu Loiolako Erriberan TAO sistema ezartzearen alde ez dagoela argitu zuen, Loiolan eragin ditzakeen ondorioak lehenago aztertu gabe, baina beste neurriak hartzeko baldintza hori onartu behar izan dutela jakinarazi zuen.



Autoak, Zuatzuko enpresa gunean. MIKEL GOÑI

↓ Intxaurrondo

# Auzora iritsi da Euskotren

Intxaurrondoko eta Herrerako bizilagunek tren geltoki berria dute erabilgai joan den urriaz geroztik. Intxaurrondo auzoari dagokionez, lehen aldiz iritsi da Euskotren auzora, eta bertako bizilagunak zortzi bat minutuan iritsi ahal dira orain Erdialderaino.

Lehen egunetan jasotako datuen arabera, beste lanegunetan zerbitzua erabili ohi dute-

nak baino 7.000 erabiltzaile gehiago zenbatu zituzten; horietatik 2.000 ohiko txartel edo abonuekin, eta beste 5.000k Intxaurrondo eta Herrerako getokietan banatutako doako txartelak erabili zituzten.

Irekiera egunean, Euskotreneko Batzorde Iraunkorrek protesta egin zuen, *Topoa Euskotren da!* lelopean. Orain arte Euskotren izan dena Metro Do-

nostialdea izendatzeak kezkak sortu dizkie. Zehazki horrek enpresa banatzea ekarri dezakeelaren susmoa dute.

Batzorde iraunkorrek ez du ulertzen nola gastatu ahal izan dituzten bi milioi euro izen aldaketa horretan. Horren inguruan, inork ez diela ezer azaldu esan dute langileek. Gainera, jakin nahi dute zein den izen aldaketaren arrazoia.



Intxaurrondoko geltoki berrira jaisteko eskailerak. KATTALINMINER

↓ Hauteskundeak

# Alderdi bozkatuena izan da EAJ

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, urrian, EAJ izan zen garaile, baita Donostian ere. Jeltzaleek sei mila boto baino gehiagoren alde atera zieten PSE-EE eta EH Bilduri hirian. EAJk 28.148 boto lortu zituen; PSE-EEK, 21.606; EH Bilduk, 21.193; eta PPK, 14.725. Parte hartzea %66koa izan zen, duela hiru urte baino ia hiru puntu gehiagokoa.

Auzoz auzoko datuei so eginez gero, emaitzak emaitza, argi geratu zen egungo udal gobernuak indar handia duela hirian, babes piskat galdu arren. EAJk gorkada izan zuen, baina koalizioa oraindik hainbat auzotan izan zen nagusi. Izan ere, EH Bildu hiriko zazpi lekutan izan zen bozkatuena: Parte Zaharrea, Añorgan, Igeldon, Zubietan, In-

txaurrondon, Egian eta Martutenen.

EAJ sei auzotan izan zen nagusi: Amara Berrin, Amaran, Antiguan, Aieten, Grosen eta Loiolan. PSE-EE, berriz, bi lekutan izan zen bozkatuena; Altzan eta Bidebietan. Parte Zaharrea lehia bizia izan zen, sei botoren aldearekin besterik ez baitzuen mendean hartu EH Bilduk EAJ.



Joseba Egibar, Ibaetan, botoa ematen. ESTITXU ZABALA

**ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA**  
ASTIGARRAGA - MARTUTENE  
**HAUR, LEHEN eta BIGAREN HEZKUNTZA**  
MARTUTENE IZILJIDEA, 48 - Tel: 943 47 02 35 - Fax: 943 45 88 54  
DONOSTIA-ASTIGARRAGA

**GANBARA**  
**PINTXOAK-ERRETEGIA**

*Omakinoak, parveztakoak eta trufak, zozela muselkoak.*  
*Arrisioa, itxigarririk ez dago.*  
*Astakeriko pintxoak, onak.*

San Jeronimo 21 - DONOSTIA  
Tel.: 943-42 25 75

**RELOJ BERRI**  
C/PE. GAZPARI

Boulevard, 20  
DONOSTIA-ERRIKORRIAN

www.relojberri.com



Jessica, lapurreta saiakeraren lekukoa. MAITANE ALDANONDO

### ↓ Amara

## Lapurreta saiakera eta hildako bat, La Caixan

Amara Berrin, Felipe IV.a hiribideko La Caixaren egoitzan lapurreta ahalegina izan zen uztailean, eta hildako bat egon zen: bi lapurretako bat hil egin zen, bala zaurien eraginez. Bestea atxilotu egin zuten.

Jessica banketxearen barrualdean zegoen lapurreta saiakera gertatu zenean: «Tran-

sakzio bat egiten ari nintzen gizon bat nire atzean jarri denean. Une horretan, leihatilako langileari txorakeririk ez egiteko esan dio. Lapurreta bat zela jakin dut orduan», azaldu zuen.

Lapur horrek besotik heldu eta bazter batera eraman zuen Jessica bera, barruan ziren gainontzeko pertsonak ziren lekura. Leku-

ko honen arabera, bulegoan sei pertsona ziren lapurrak sartu zirenean; hiru bezero eta hiru langile, hain zuzen ere: «Lasai egoteko esan digute, eta lurrean esertzeko eskatu. Leihatilakoari kutxa ireki zezala esan diote, dirua besterik ez zutela nahi», adierazi zuen Jessicak.

Ertzaintza bertaratu zenean hasi zen tiroketa. «Tiro hotsak entzun ditugunean, denak lurrera bota gara, elkarren artean babestuz. Oso azkar joan da dena. Hamabost minutu eskasetan gertatu da», esan zuen.



Balea, Kontxako hondartzan. NAGORE KOCH

### ↓ Kontxa

## Balea bat hil da hondartzan

Abenduko zubiaren hasierak ezustea ekarri zuen Donostiara; balea bat hilda agertu zen Kontxako hondartzan. Balea bezperan ikusi zuten badian, eta biharramunean hondartzara iritsi zen, gaixotasunak jota, bertan hiltzeko.

Eguraldi onak lagunduta, eta pertsona askorentzat jai eguna

izanik, jende ugari zebilen Kontxako hondartzan. Udaltzaingok lokarritz hesitu behar izan zuen gunea jendearen joan-etorria zaintzeko.

Gaixotasunak erabat ahuldu zuen balea itsasoan zela; hortaz, babes bila etorri zen Donostiako badiara, Kontxan hil zen arte. Azalean odola zuen, arrokek eta

hondarrak eragindako zaurien-gatik. Hamabost metroko luzera eta zortzi eta hamar tona bitarteko pisua zuen baleak, izan behar harko lukeenaren erdia; gaixotasunaren ondorioz pisua galdu zuen. Udalak tona askoko bi garabiren bidez balea altxatzea erabaki zuen, kamioi batean sartzeko, goizaldean.



Oihana Fernandez, Amparo Miguel eta Saioa Aizpurua. AGURTZANE ALTUNA

### ↓ Donostia Ospitalea

## Pailazoak, gaixotasuna arintzeko

Pailazoak barrea eta algara ondoan darama beti. Algaraklown taldea, ordea, irribarretik harago doa; gaixotasuna dagoen tokietan alaitasuna eta ilusioa bantzeko sortutako pailazo terapeutiko taldea baita. Helburu horrekin jarri dute abian Donostiako Ospitaleko egonaldia goxatzea helburu duen egitasmoa.

Azaroan hasi ziren Algaraklown taldekoak Donostiako Ospitaleko haurrei bisitak egiten, baina urtetako eskarmentua

dute clown lanetan. Dena dela, orain elkarlanean gogotsu badabiltza ere, kasualitatez sortu zen taldea.

Saioa Aizpurua (Errenteria, 1978) eta Amparo Miguel (Valentzia, 1951) Madrileran joan ziren ospitaleko clown izateko ikastaro batera. Autobus bera hartu zuten Donostian, baina ez zuten elkar ezagutzen. Biek, ordea, helburu bera zuten. Madrilen ikasitakoarekin Donostiako Ospitalean clown proiektu bat sortzea.

Hala, Madrilgo ikastaroan elkar ezagutu, eta gaur egun Algaraklowneko arduradunak dira. Talde irekia da, hamar bat lagun badira dagoeneko; Oihana Fernandez (Gros, 1986), tartean. «Eri-zain lanetan ari naizenean ez dut sudur gorriarik janzten, baina gaixoen egonaldia ahalik eta goxoen izaten saiatzen naiz beti; lanean edo lanetik kanpo, beti dut clown izaera», adierazi du Oihana Fernandezek.

# Jarri sasoian!

**Judo guztiontzat**

**Defentsa pertsonala**

# judo CLUB

Donostia

JUDO  
KARATEA  
KIK-BOXINGA  
BOX-TRAININGA  
BORROKA  
ETA SANBOA  
SHORINJI KEMPOA  
GIMNASIA  
GIHARKETA  
WING CHUN

Donostiako arte martziala aretoa  
Anoeta, 16 - Lasala plaza 3

[judoclubss@gmail.com](mailto:judoclubss@gmail.com)  
☎ 943-47 15 36



Txillardeggi, 2005eko argazki batean. ALBERTO ELOSEGI / IRUTXULO

# Agurren eta urtemuguen urtea

Txillardeggi eta Joxe Aierbe hil ziren urtea bezala gogoratuko dute donostiarrek 2012a, baita Txirri, Mirri eta Txiribitonek adio esan zuten data gisa ere. Viktoria Eugeniaren mendeurrenarengatik ere izango dute gogoan.

## ↓ Txillardeggi

## Idazle antiguatarra zendu da, ekarri oparoa utzita

### Aritz Sorzabal

Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeggi* (1929-2012) urtarrilaren 14ean zendu zen. Hil baino egun gutxira arte kalera irteten bazen ere, adinaren ondorioz, osasunez ahul zebilen, eta heriotzera eraman zuen. Etxean zendu zen, 82 urte zituela.

Hil kapera Errekaldeko beilategian izan zen, eta, ondoren, errausketa familia giroan egin zuten. Beilategira politikako eta euskalgintzako hainbat ordezkari joan ziren azken agurra ematera: Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea, Jose Austin Arrieta idazlea, Xabier Mendiaguren Elizegi idazle eta editorea, Koldo Izagirre idazlea eta

Ramon Agirre aktorea, besteren artean. Bere heriotzak hutsunea eta galera handia ekarri dituela adierazi zuten Euskal Herriko hainbat alorretako kide askok. Bidea ireki zuela goraiatu zuten, eta bere ibilbidearekin jarraitzeko konpromisoa ere hartu zuten.

Argi dago, betirako geratuko dela Txillardegiren oinordetza, bai Donostian bai Euskal Herrian ere. Euskara, literatura eta politika uztartu zituen bere bizitza oparoan zehar, eta horietako arlo bakoitzean ondare nabarmena utzi du. Hirian ere lan egin baitzuen euskararen alde. IRUTXULO KO HITZAKO kolaboratzailea izan zen, *Loretopenetik* atalerako iritzi artikulak idatziz.

Horretaz gain, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteko kidea izan zen, bai bera eta bai bere sendia ere.

Bitxia da, baina bere kabuz hasi zen euskara ikasten 1948an, etxean jakin arren ez ziotelako erakutsi. Hamarkada batzuk geroago, Euskara Batuaren eratze prozesuan eragile nagusienetakoa izan zen, buru-belarri kolaboratu baitzuen lan horretan. Euskal aditz batuaren taulen egilea izan zen, esaterako.

Bere ideologia politikoak otopatu zion euskaltzain oso gisa izendatua izatea. Hala ere, azkenean, bere hautagaitza proposatu zuten, baina berak uko egin zion izendapenari.

Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordeko kide izan zen, 1993an batzorde hori sortu zenez geroztik.

Era berean, Euskal Herrian Euskaraz elkartearen sortzaile-etako bat izan zen.

### Ondoko etxearen izena

Jatorrizko izen deituz baino, ezinez zen ezagunagoa. Bere amona hil zenean, aitona Tolosa uztea erabaki zuen, oso minduta geratu zelako alarguntzean. Hala, bere aitak 10 urte zituenean etorri ziren Donostiara. Bere aitona etxe bat eraiki zuen bere emaztearen izenean eta Casa Victoria jarri zion. Etxe hori Txillardeggi izeneko etxearen ondoan eraiki zuen, eta hor-

tik hartu zuen ezizena. «Toponimoa da, ez da etxekoa. Ni ez naiz inoiz Txillardegikoa izan. Txillardegikoak Iturriatarrak dira, eta ez gu. Matia kalean zegoen etxea, eta horregatik hartu nuen izen hori. Toponimoa zelako, eta nire ustez, euskal tradizioari jarraituz toponimo hori hartu nuen, eta ez neure izena», azaldu izan zuen idazleak.

Antiguatik Parte Zaharrera joan zen bizitzera Txillardeggi. Hala ere, antiguatarra izan zen betiko, «antiguatar gelditu naiz sentimenduz», esan ohi zuen. Horrela uler daitezke berak idatzitako *Antigua 1900* (1991) eta *Santa Klara, gure uharte ezezaguna* (2004) liburuak.

• asorzabal@hitza.info



Haritz Azkarraga, Juan Karlos Izagirre eta Ane Rodriguez. JESUS MARI PEMAN

↓ Tabakalera

# Rodriguez, zuzendari

Tabakalerako Administrazio Kontseiluak ekainean hautatu zituen Ane Rodriguez eta Haritz Azkarraga kultura zuzendari eta kudeatzaile berri gisa.

Ane Rodriguez (Donostia, 1978) kultur kudeaketan esperientzia zabala duen pertsona da, eta, azken urtean, denbora gutxian

erreferente bihurtu den Matadero Madrilgo kultur ekoizpen zentroaren koordinazio taldeko kide izan da. Aurrez, ARCOen ere lan egin zuen lau urtez, garai hartan zuzendari zen Lourdes Fernandez donostiarrarekin batera.

Haritz Azkarraga izango da Tabakaleraren kudeaketaren ardu-

ra bere gain hartuko duena. Mondragon Unibertsitateko ingeniari tekniko industriala da Azkarraga (Arrasate, 1973). Kursaal kongresu jauregiko zuzendari tekniko eta kudeaketa zerbitzuetako arduradun lanetan ibili da. Ibilbide luzea burutu zuen kooperatiben alorrean.

Ikerne Badiola Kultura diputatuak lan talde berriaren dohainak goraipatu zituen; gaztea, baina eskarmentu handikoa delako.



Hekimen elkartearen aurkezpena Koldo Mitxelenaren aurrean. HEKIMEN

↓ Hedabideak

# Hekimen sortu dute

Publiko ez diren euskarazko komunikabideek Hekimen elkartearen aurkezpena Donostian, Koldo Mitxelena Kulturunean, «ahots bateratua» izateko eta «eremu komunikatibo sendoa» garatzeko helburuarekin. IRUTXULOKO HITZA elkartearen dauden komunikabideetako bat da.

Tokikom elkarteko zuzendari Iban Arantzabal izango da Hekimeneko presidentea. Postu hau urtero txandakatuko dute. Zortzi kideko zuzendaritza izango du elkarte berriak; aipaturako Tokikom, *Argia*, *Berria*, Euskal Irratiak, *Gaur 8*, *Gazteberri*, Hamaika Telebista eta Xaloea Tele-

bistako ordezkariak osatuko dute. Hekimen elkartearen barruan berrogeita hamar bat komunikabide daude oraingoz, baina elkarteko ordezkariak euskaraz jardun eta publikoak ez diren gainontzeko hedabideei deia luzatu diete.

«Orain ahots bateratua izango dugu: gizartearen aurrean agertzeko, instituzioekin hitz egiteko, gure kezkek agertzeko, gure indarra...», esan dute.



Viktoria Eugenia, Jazzaldiaren aurkezpen egunean. NEREALIZARRALDE

↓ Viktoria Eugenia

# Mendeurrena ospatu dute

Viktoria Eugenia Antzokiaren mendeurrenaren ospakizun handia izan zen uztailaren 20an. Gaujazza izeneko festa ospatu zuten gauerdian. Jazz doinuek bete zituzten antzokiko txoko guztiak. Ray Gelato & His Giants Orchestra, Norvegiako Mari Kvien Brunvoll abeslaria, Josetxo Goia-Arribe, Dorantes

piano jotzailea, Terje Rypdal gitarrista, Ipar Euskal Herriko Just Friends Quintet, Peter Evans tronpetista... Kontzertuak hasi baino lehen Viktoria Eugeniaren 100 urteengatik topa egin zuten.

1912ko uztailaren 20an inauguratu zuten Viktoria Eugenia Antzokia. Kulturaren aterpe izan da

azken ehun urteetan. Eta hori baino gehiago: Nazioarteko jaialdien egoitza, agertoki frankista, gerra arteko artisten babesleku, izar handien kamerino, talentu berrien sehaska, hainbat aldarrikapenen bozgorailu... Batzuetan, denen zerbitzuan; eta urte askoan, gutxi batzuen esku.

## Formamos personas Creamos profesionales Pertsonak heziz Profesionalak sortuz

- GZ Injeneria lanika (A-D)
- Ekoiztasun (A-D-A)
- E2 Injeneria tekniko eta automatizazio
- G2 Automatizazio eta robotika industriala
- Eguzki eta energia
- Arotzeria eta alfilerketa (A-D)
- E2 Injeneria eta alfilerketa (A-D)
- G2 Injeneria eta alfilerketa (A-D)
- Dantza (D-A)
- G2 Arta eta haurren jarduera
- Komunitateko zerbitzu soziokulturak
- E2 Mendeurrenaren egunean dantza pertsonalaren aurkezpena (A-D-A)
- G2 Haur zerbitzuak (D-A)
- Fabrikazio mekanikoa
- G2 Fabsolazio mekanikoa (A-D)
- G2 Produktibitate programazioa (A-D)
- E2 Mekanizazioa (A-D)
- E2 Dibuitzioa (A)
- G2 Lanbide arrakastuaren proiektuak (A-D)
- Garapen eta kudeaketa
- E2 Injeneria (A-D)
- G2 Garapen eta kudeaketa (A-D)
- Bizikletza eta ibilgailuak (A-D)
- G2 Enkuntzako proiektuak
- CS Química ambiental (A-D)
- Electricidad (A-D-A)
- CM Instalaciones eléctricas y automatizadas
- CS Automatización y robótica industrial
- Madera y mueble
- CM Carpintería y mueble (A-D)
- CM Instalación y ensamblamiento (A-D)
- CS Diseño y ensamblamiento (A-D)
- Sanidad (D-A)
- CS Higiene bucal
- Servicios socioeducativos y de inserción
- CM Atención a personas en situación de discapacidad (A-D-A)
- CS Educación infantil (D-A) (M-T)
- Fabricación mecánica
- CS Diseño en Fabricación mecánica (T)
- CS Programación de la producción en FM (A-D)
- CM Mecanizado (A-D)
- CM Joyería (A)
- CS Prevención de riesgos profesionales (A-D)
- Actividades físico-deportivas
- CM Coordinación de actividades físicas y deportivas (T)
- CS Animación de actividades físicas y deportivas (A-D)
- Educación y ocio social (A-D)
- CS Proyectos de edificación



CM - Coto medio + E2 - Ed. material de base + CS - Coto superior + G2 - Gar. material de base + A - Ocio social + M-T - Modulo Técnico + D-A - Ocio + A - Ocio + A - Ocio

## Herritarrak kalera irten dira murrizketen aurka protesta egiteko

Hiru greba egun egin dituzte 2012an; martxoaren 29ko lan uzteak sindikatu guztiek deitu dituzte **oII**

## Enpresa guneetan ez da TAO sistemarik egongo, udalbatzak erabakita

EAJk eta PPk bat egin dute udal gobernuarekin; PSE-EEK, ordea, abstentzioaren alde egin du **oIV**

## Jazz doinuekin ospatu dute Viktoria Eugeniaren mendeurrena

Gaujazza izeneko festa egin dute urtebetetze egunean; antzokia kulturaren aterpe izan da ehun urtez **oVII**

## Hamabost metroko balea bat hilda agertu da Kontxako hondartzan

Babes bila etorri eta gero zendu da Donostiako badian, gaixotasunak jota; ikusmina piztu du herritarren artean **oV**

## Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegi' zendu da, 82 urterekin

Errekaldeko beilategira politikako eta euskalgintzako ordezkari ugari joan dira antiguatarrari azken agurra eskaintzeko **oVI**



## Iritzia

Ez gaitzela kexa


**Aritz Sorzabal**  
Kazetaria

**A**gur esateko ordua iritsi zaigu, eta ez bakarrik urteari. Urtarriletik aurrera proiektu berri bat abiatzea aurreikusita du IRUTXULOKO HITZAK, urtekari honen azken orrian zehazten den bezala, baina hori ere ez da adio esateko arrazoia. 2012ko abenduaren 21a da bihar, mundua bukatuko omen den eguna. Hala iragarri dute, behintzat, aspalditik. Urrutira joan gabe, duela urtebete, 2011ko urtekarian, gaurko gai berari buruz egin nuen gogoe-ta zutabe honetan.

Hain zuzen ere, maia zibilizazioaren egutegia oinarri hartuta, ustez, aurtengo Santo Tomas egunean etorriko da hondamendia. Iragarpen honi buruzko pelikula bat eta guzti egin dute, baita zenbait liburu idatzi ere. Mahai inguruak ere egon dira gaiari buruz, baita iritzi eta analisi jario handia komunikabideetan. Horrenbestez, zalantza gutxi daude; bihar gure bizitzaren azken eguna izango da. Egunkari, irrati eta telebistek hala badiote...

Guztia amaitu aurretik, egin gabe geratu diren gauza horiek egiteko denbora gutxi izango dugu egunkari honetako kazetariok. Guretzat lan eguna da biharkoa, eta, gauerdian gertatzen dena gertatuta ere, hala izatea pentsatu dugu. Hiria nola suntsitzen den ikustea eta kontatzea izango da gure zeregina, baina, hori gertatu ezean, iragarpena beteko ez balitz, Santo Tomas egunaren kontakizun zuzena egingo dugu webgunearen bitartez, goizean goizetik.

Tristea da gero; munduaren azken egunean ere nahi duguna egiteko aukerarik ez. Konstituzio plazan izango den *Tomaxirekin* gertatu bezala, atzera kontaketa hasi da, eta Santo Tomaseko txerria bezala, kateatuta gaude, nahi duguna egin ezinik, lan egitea egokitzen zaigulako.

Bada, ezinak ezin, zorizaizto-koak baino, zoriontsuak gara gu; azken batean, lana dugu, eta garai honetan hori esatea ohore bat da, esaldia topiko xamarra izan arren. Etsipena oso zabaldua dago gaur egun, zenbaitek euren bizitzarekin, munduarekin, amaitzeko erabakia hartzeraino. Horiengatik bakarrik, errespetuari zor, ez gaitzela kexa!

● asorzabal@hitza.info

**Autobus geltokia Atotxan eraikiko dute azkenean**

Loiolako Erriberako kokagunea baztertu du oposizioak, Bilduren proposamenaren aurka ◊ III

**Intxaurrondoko eta Herrerako bizilagunek tren geltoki berria dute**

Euskotreneko langileek protesta egin dute irekiera egunean, 'Topoa Euskotren da!' leloarekin ◊ IV

**Ane Rodriguez Tabakalerako kultura zuzendaria izendatu dute**

Kudeatzaile berri Haritz Azkarragarekin batera hasi da lanean donostiarra ◊ VI

**Xabier Zabalak Jose Ramon Mendizabalen lekua hartu du**

Loiolatarra Donostiarra arraun elkarteko entrenatzaile berria da; azken bi urteetan traineruko arraunlaria izan da ◊ XII

**Anoetako atletismo pista kentzeko urratsa eman du udalak**

Plan Orokorrean aldaketak onartu ditu, Amarako kasuan, estadioaren birmoldaketa egiteko ◊ XII

↓ Arteleku

# Uholdeek eragindako kaltea konpondu dute

Egunerokotasunari agur esan zion Artelekuk 2011. urteko azaroan, uholdeek eragindako kalte larrien ondorioz; hilabeteetako lanen ostean, oinarritzokolekua eta materiala atonduta, berriro ere bere bidea hartu zuen ekainean.

«Ez ginen etorkizunari edo iraganari begira ari, hunkituta geratu ginen. Urak bi metroko altuera hartu zuen, eta lehen solairuko material guztia eta lan egiteko ge-

nituen baliabide guztiak urez beteak geratu ziren. Nire kasuan, ordenagailuan hamar urtez bildutako informazioa galdu nuen». Halaxe oroitu zuen Artelekuko programa koordinatzaile Natalia Barberiak 2011ko azaroa. Berezi-ki, Txomin Enea eta Martutene auzoak jipoitu zituzten orduko uholdeek, eta kalte larriak eragin zizkien bizilagunei.

Txominen egoitza duen Artele-

ku sorkuntza guneak ere sekulako galerak izan zituen. Orduetik garbiketa, konponketa eta berreskuratze lanetan aritu ziren bertako erabiltzaileak, ahalik eta azkarren egoitza lan egiteko moduan izateko. «Berriro ere zerotik hasateko arrazoia bilatu genuen», gehitu zuen Barberiak.

Egindako konponketa lanei esker, ekainaren bukaeran berriro atearak zabaldu zituen Artelekuk, eta komunikabideei zein herritarrei bertaratzeko deia egin zieten. Oraindik bertako arduradun eta artistei zeregina geratzen zaien arren, sorkuntza lanean murgildu ziren berriro ere, hori baita egiten dakitena.



Artelekuko programa koordinatzaile Natalia Barberia. ESTITXU ZABALA



John Travoltak banatutako bost Donostia Sarietako bat etxeratu zuen. NEREA LIZARRALDE

↓ Zinemaldia

## Izarrak, 60. urtemugan

Francois Ozon zuzendari frantziarraren filmari eman zioten film onenaren saria Donostiako Zinemaldiaren aurtengo ekitaldian. Ez zen ezusteko handirik izan 60. Zinemaldiaren palmaresean, Ozonen filma faboritoen artean baitzegoen. *Dans la maison* filmak eskuratu zuen Urrezko Maskorra.

Gidoi onenaren saria ere jaso zuen gainera. Juan Mayorgaren *El chico de la última fila* antzerki obran oinarrituta dago Ozonen filma. Mayorga bera ere igo zen taula gainera, Ozonekin batera saria jasotzera.

Aurtengo Zinemaldira izar asko etorri ziren, eta horietako batzuk saria jasota etxeratu ziren. Hain zuzen ere, bost Donostia Sari banatu zituzten, inoiz baino gehiago. Jaialdiaren 60.

urtemuga ospatzeko erabaki zuten horrela izatea. Dustin Hoffman, Tommy Lee Jones, John Travolta, Ewan McGregor eta Oliver Stone izan ziren garaikurra jaso zuten izarrak.

Horiez gain, Susan Sarandon, Richard Gere, Monica Bellucci eta Ben Affleck aktoreak Donostian izan ziren, besteak beste.

Inaugurazio gala 60. urtemugaren ospakizuna izan zen. Jaialdiaren une gogoangarriak ekarri zituzten gogora Kurasaaleko festan. Izarrez betetako ospakizuna izan zen, nola ez. Susan Sarandon eta Richard Gere izan ziren protagonistak.

Aurtengo zenbakiei dagokienez, Zinemaldiak ikusle kopuruari eutsizion, greba eguna izanagatik eta BEZa igo izanagatik ere. 157.256 ikusle izan ziren jaialdian; iazkoan, berriz, 158.608

Irailaren 26ko greba zela-eta iazko jaialdian baino 32 emanaldi gutxiago egon baziren ere, eta sarreraren prezioaren BEZa %8tik %21era igo bazen ere, 1.353 ikusle gutxiago egon ziren soilik Zinemaldian.

**TENTAZIA**  
ANTZERKI ETA  
IXUS - ENTZUNEZKO  
EKOIZPENAK  
SEKUNTZA ZERBITZUA: 11-11-11-11-11  
20009 Donostia  
Tel: 943 43 66 08 - Fax: 943 43 22 10  
www.tentazia.com

**OLANO**  
Nagusia, 12  
tel. faxa 943 427 154  
Gizonezko moda  
20003 DONOSTIA

**Patri Jatetxea**  
kale nagusia 14  
USURBIL  
943 36 27 25

**ADECO**  
NAZIOARTEKO  
ZUZENBIDE  
AHOLKULARITZA  
Garihai, 6 - 1. B  
Tel.: 943 42 67 44 - Faxa: 943 43 06 37  
www.adeco.es • info@adeco.es

**HONTZA ELKARTEA**  
Eliza kalea, 5  
Tel.: 943 46 82 37  
LOIOLA (Donostia)  
PRESO, EREFUXIATU  
ETA IHESLARIAK  
ETXERA!

## ↓ Joxe Aierbe

## Loiolatarrak hutsune handia utzi du

Joxe Aierberen hutsunea nabaritu dute loiolatarrek, euskal kulturaren bultzatzaile nagusienetakoa urrian hil baitzen, 78 urterekin, osasun arazoaren ondorioz. Ubegi baserrian jaioa zen Aierbe, arotza zen lanbidez, elizkoia eta euskaltzalea.

Oraindik ere gogoko zuen baserri lanetan aritzea, Ubegiko baratzean. Maru Diazekin ezkondua zegoen, eta Mirari eta Joxemi seme-alabak izan zituen;

baita biloba bat ere, Maddi. Bere aita Bartolorengandik jasotako bertso zaletasuna odolean zerman, eta maiz bertso jartzaile lanetan aritzen zen. Bere bertso papekin liburu bat ere argitaratu zuen, *Alako batean* izenburupean, 1997an.

Aurrerago, 2004ean, *Agindua zor* ere kaleratu zuen; bertan, hainbat urteetan idatzitako bertsoak, ipuinak, kronikak eta irizkiak bildu zituen. Bertso Egune-

ko omenduetako bat izan zen 1994an, beste zazpi bertso jartzailerekin batera.

Auzoko mugimenduarekin lotura estua izan zuen, eta Arantzazuko Ama ikastolaren bultzatzaileetako bat izan zen, Martutene eta Loiola inguruan ikastola baten beharraz jabetuta. Felixi Etxeberria ikastolako irakasleetako bat da, eta gogoan du Aierberan lana. «Loiolako ikastola berak abiatu zuen, eta Joxemi, bere semea, Loiolako lehen ikaslea izan zen», adierazi du Etxeberriak.

Hori guztia kontuan izanda, ez da harrizkoa Aierbe Loiolan maitatua izatea.



Joxemi Aierbe, semea; Maru Diaz, emaztea; eta Joxe Aierbe. IRUTXULOKO HITZA

## ↓ Txirri, Mirri eta Txiribiton

## Adio, berrogei urte geroago

Agur esan dute pailazoen Donostian; Euskal Herriari, berriz, urtarilaren 6an esango diote adio, Igorren egingo duten azken emanaldiaren bitartez. Txirri, Mirri eta Txiribitonek, berrogei urtez lan eta lan ibili ondoren, erretiroa hartuko dute; alegia, Xabier Otaegik (Amara, 1952), Jose Ignazio Ansorenak (Parte Zaharra, 1953) eta Txema Vitoriak (Amara, 1943). Txirri, Mirri eta Txiribiton gazteei eman nahi diete lekukoa; Fernando Ruizi, Kattalin Ansorenari eta Juanma Zalduari. Denak elkarrekin izan ziren, abenduaren 15ean, Viktoria Eugenia Antzokian eman zuten azken saioan.

Lehen emanaldia Kresala elkartearen egin zuten duela 40 urte. «1972. urteko martxoan izan zen. Ez zegoen deus haurrak euskaraz dibertitzeko. Azkenean erabaki genuen errazena pailazoa-

rena egitea izango zela, eta kua-drillako jendearen laguntzarekin, jantzi batzuk prestatu genituen. Eta batez ere gure lagun Pako Etxebestek lagundu zigun. Apaizgaia zen garai hartan; eta hark ekarri zizkigun pailazo gidoi batzuk», ekarri du gogora Xabier Otaegik.

Euskaraz asko zegoen egiteko garai hartan. «1972 urte hartan puri-purian zegoen kontu bat, euskaldunen artean beti bezala, kristoren liskarrak eta gorrotoak sortzen zituena: euskarra batua.

Guk hasieratik euskarra batua- ren alde egin genuen. Baina beste- teen kontra egin gabe. Zergatik? Zorte izugarria izan genuen. Nemesio Etxanizengana jo genuelako. Tipo izugarri euskaltzalea eta jakintsua zen. Esku zabalik hartu gintuen», azaldu du Jose Ignazio Ansorenak.

Hastapenean egindako lanarekin harro daude. «Gure ekarpena neurri batean iraultzailea izan zen. Euskaraz ikuskizun bat egitea, eta haurrentzat gainera», erantsi du Otaegik.



Txirri, Txiribiton eta Mirri. ETB

**JUAN ALMANDOZ.SL**

Autoaren Mekanika eta Elektrizitatea

www.juanalmandoz.com

Marinelen enparantza, 3 Acc • Tel: 943 45 79 02 • 20011 DONOSTIA

**MARCOS**

okindegia

Benetako antzinako ogia

Ubarburu pasealekua, 113 • 27. Industrialdea • ASTIGARRAGA  
Tel.: 943 45 09 66 - Faxa: 943 11 67 28



**GOZOTEGIA**  
**OIARTZUN**  
Bonboneria

Igentea, 2  
Tel.: 943-42 62 09

Alde Zaharra DONOSTIA

IZOZTEGI-DENDA berria  
kantoi berean  
Kale Nagusia, 1

ABENDUAK 1 - HIESAREM EGUNA

**MURRIZKETARIK EZ!**

Euskal Herriko GayLes Askapen Mugimendua

**ehgam**  
euskal herriko gay les askapen mugimendua

Plazerra  
besterik ez  
transmititu

# Gazteei utzi diete lekukoa

Donostiarra klubeko entrenatzaile Jose Ramon Mendizabalek eta Realeko kapitain Larraitz Lucasek amaitutzat eman dute euren kirol ibilbidea, haien lekua betetzeko gaitasuna badagoela jakitun

↓ Donostiarra

## Xabier Zabala loiolatarra da entrenatzaile berria

**Aritz Sorzabal**

Xabier Zabala *Bixkar* (Loiola, 1974) arraunlari ohia da, azaroaz geroztik, Donostiarra klubeko traineruko entrenatzaile berria. Jose Ramon Mendizabalen lekua hartu du loiolatarrak, klubeko zuzendaritzak hala erabakita, eta Mendik kargua utzi eta gero.

Gaztetatik hainbat kirolean aritu da Bixkar, eta kadetea zela ekin zion arraun ibilbideari. Bere auzoko klubean hasi zen, Loiolan, Ur-Kirolakekin. Bertan osatu du bere arraun ibilbideko denbora tarte luzeena; Urkin aritu baitzen, arraunfinkoan zein mugikorrean, 28 urte bete zituen arte. Ondoren, Urkik trainerua osatzerik

izan ez zuen garaian, Zumaian aritu zen arraunean.

Hernanin aspaldiko urteetan geldirik zegoen klubean, berpizte lanetan ere aritu da Bixkar. Hainbat lagunen artean, kluba berriro abian jartzea lortu dute, eta egun Hernaniko entrenatzaileetako bat da. Lehenago ere, ordea, Urkiko entrenatzailea ere izan da. Gainera, Trintxerpen eta Pasai Donibanen ere arraun egin du. Beraz, esperientzia faltarik ez du. Azkeneko bi urteetan, Donostiarrako arraunlaria izan da Bixkar. Orain jauzia emango du, entrenatzaile postua betetzeko.

Komunikabideetara zabaldua oharrean, Donostiarrako zuzendaritzak Mendi gogoan izan zuen: «Gaur arte egin duen lan bi-



Xabier Zabala *Bixkar*. MIKEL GOÑI

kaina eskertu nahi diogu. Urte hauetan guztietan kirol proiektua sendotzeko egin duen lana aparta izan da».

Lanerako gogo handia erakutsi zuen Bixkarrek izendatu bezain pronto: «Ardura sentipena dut. Azkenean, hiriburuko trainerua da, eta begi asko izango ditugu gainean. Bazkide asko, ilusio handia... ardura handia izango dut».

Mendik bere ordezkorentzat hitz onak izan zituen: ««Pertsona egokia dela uste dut, eta badu esperientzia entrenatzaile bezala. Oso zuhurra da, egoeren azterketa orekatuak egiten ditu, eta egokia da. Etxekoa da, eta oso ongi ezagutzen du kluba».

• asorzabal@hitza.info

## Gipuzkoako Ibilbideak liburu bilduma

Gipuzkoan barrena murgiltzeko aukera ematen du 5 liburuxkek osaturiko ibilbide sorta honek.

Donostia, Urola Kosta, Goierrri, Oarso Bidasoa eta Tolosaldeko txokoak ezagutzeko aukera ederra!

\* 6 eurotan **salgai**  
\* Eskuratzeko deitu **943-46 72 36** telefonora

hitza





Kote Olaizola, Fernando Diez eta Iñaki Jauregi. BERA BERA

## ↓ Kote Olaizola

# Dolua, Bera Beran

Jose Ignacio Olaizola donostiarra, Kote Olaizola bezala ezaguna zena, maiatzean hil zen, bihotzekoak jota, 60 urterekin. Kirol arloan pertsona ezaguna zen, Donostiako Bera Bera klubeko sortzaile-etako bat izan zen, eta Donostia Kirolakeko langilea zen. Beraz, min eta galera handia sortu du bere heriotzak; Donostiako kirol arloan, bereziki.

Atletismoarekin, saskibaloiarekin eta errugbiarekin lotura handia izan zuen Olaizolak, besteak beste. Hala, gaztetan errugbi jokalaria eta atleta izateaz gain, ema-

kumezkoen Donosti eta Juven saskibaloitako entrenatzaile izan zen. Aurten, Espainiako Errugbi Federazioko presidente izateko hautagaia zen. Bere semea, Julen, Iraurgi Lan Mobel eta Lagun Aro GBCKo jokalaria da.

Bera Berako presidente Fernando Diezek bere oroitzapenen berri eman zuen. «Orokorrean kirol guztiarentzat galera izan da, baina bereziki Bera Berarentzat. Momentu honetan klubeko bazkidea bakarrik zen, baina zuzendaritzako kidea izandakoa zen; beti hor izaten zen, eta asko hitz egiten

genuen», oroitu zuen Diezek. Azken batean, galera «ordezkaezina» izango da Diezen ustez.

Ideaugariren bultzatzaile eta sortzaile bezala oroituko dute askok Olaizola. «Sekula ez zuen lurra ukitzen, eta heldu egin behar izaten genion. Ideiak sortzeko makina bat zen; Gipuzkoa Basket, esaterako, bere ideia izan zen», azaldu zuen. «Urte asko eman genituen elkarrekin. Garai txarretan elkarrekin kluba eusteko gai izan ginen, Iñaki Jauregi eta Iñaki Arnaezekin batera», erantsi zuen Bera Berako presidentek.

## ↓ Reala

# Anoetako lanei, argi berdea

Udalbatzar luzea egin zuten irailaren bukaeran udaletxean; ia berrogei gai izan zituzten hizpide, mozioak eta erakunde adierazpenak kontutan hartuta. Hartutako erabaki garrantzitsuenetako bat Anoeta inguruan egiteko dagoen hirigintza egitasmoari lotutakoa izan zen. Gainera, udal talde guztiek bat egin zuten erabaki hori hartzeko garaian.

Udalbatzak Hiriko Plan Orokorrean aldaketak onartu zituen aho batez, Amarako kasuan, Anoeta estadioaren birmoldaketa egin dadin. Hala, realzaleek hainbatetan eskatutako atletismo pista kendu ahal izatea bideratu zuen ofizialki udalak, iraila hasieran udal gobernuak hartutako erabakiaren bidetik. Izapide hori beteta, Gasteizera bidali zuten proposamena; Lurralde-Antolamendu Batzordera, alegia.

Horrenbestez, proiektua Eusko Jaurlaritzaren esku dago orain, behin betiko onarpena jasotzeko zain. Argi berdea lortuz gero, eraikuntza proiektua eratzeko garaia iritsiko da. Birmol-

daketa lanek lau urteko luzapena izango dute, eta bitarte horretan, ez dute estadioa itxiko. Hala, futbol partidak normaltasunek jokatuko dituzte eta uneoro 27.000 zalerentzako eserlekuak egotea bermatuko dute. Atletismo pista kenduta, 40.000 ikuslerentzako egokitu nahi dute Anoeta.

Aho batez hartutako erabakia izan arren, oposizioak ez zuen aukera galdu Bilduko ordezkariak kritikatzeko. EAJko bozeramaile Eneko Goiaren hitzetan, «urte eta

erdi egitasmoa aztertzen egon omen dira, askorekin hitz egin... mundu guztiarekin hitz egin dute, udal taldeekin izan ezik; harrigarria».

Kritika bera egin zuen PPko ordezkari Ramon Gomezek: «Ez dute udal taldeekin hitz egin, eta gogoratzen diet ez dutela gehiengorik». PSE-EEko bozeramaile Ernesto Gascok, era berean, udal gobernuaren «iluntasuna» salatu zuen. «Ez da elkarrizketa existitzen», adierazi zuen Gascok.



Anoeta estadioaren kanpoaldea. ESTITXU ZABALA

**TANTTAKA**  
teatroa

"Soinujolearen semea"

"Gau erdian" - "Bejondaigula"

"Kafka eta panpina bidaiaria"

Salamanca pasealekua, 14 - 4. bulegoa  
20003 DONOSTIA  
Tel.: 943-42 94 94 - Faxa: 943-42 22 12 -

tanttaka@produkzioak.com • www.tanttaka.com



**Carrocerías Ussa**

**ONDO PASA JAIK!**

Txingurri pasealekua 15 • HERRERA • Tel.: 943 391 613

**Eskaintza zure neurrira:**

- Egunero (7, 3 eta 5 ordu)
- Astean bitan
- Larunbatean
- On line
- Konbinatuak

**ILAZKI ELEKTRONIKOA**  
euskarara da bideak!

**Konstituzio plaza, 5 DONOSTIA**  
Tel.: 943 42 49 10 - ilazki.com

**ERNIOPE** **EYSKIL**  
**TABERNA** **GIROA**

San Juan kalea, 11  
Tel.: 943 42 57 86  
DONOSTIA

1976  
geroztik

**IMANOL**  
HARRATEGIA

**bai**  
garrantzitsua  
euskaraz

TXIRRITA BERTSOLARIA, 14 ALTZA  
TEL.: 943 39 29 40

"Ez gaude denok"

**ANTIGUOTARRAK**

**ELKARTEA**

**MATIA KALEA 31 BIS**  
**ANTIGUA**

www.restaurantegandarias.com

**Gandarias**  
**JATETXEA**

Abuztuaren 31, 23 - 20003 Donostia - Tel.: 943 42 63 62

**Jatetxea 11:00etatik 24:00etara irekita**

Dasta itzazu gure berezitasunak: Botilako eta kopako ardo karta  
pintxo hotz eta beroak • txuleta • antxumea • arraina aukera zabala daukagu

kirola >



Larraitz Lucas. REALA

↓ Larraitz Lucas

## Anoetan utzi dio baloia astintzeari

Larraitz Lucas egiatarrak Reala eta futbola utzi ditu, baloia astintzen hamasei urte eman eta gero. Euskal Herriko selekzioaren elastikoa jantzita agur esan zuen ekainean, Anoetan, 7.000 zaleen aurrean. «Bizitza berri bat» hasi nahi zuela esan zuen, familiari, bikote-

ari eta bere buruari denbora gehiago eskaintzeko. «Egumen batean nire seme-alabei esango diet euren ama jokalaria izan zela», esan zuen Lucasek futbola utzi eta egun gutxira.

Anoetan, Euskal Herriko eta Eslovakiako selekzioen arteko

partidan, berrogeita bi minutu jokatu zituen, eta une horretan iritsi zen partidako momenturik hunkigarriena. Zaleen txalo zaparradak eta taldekideen besarkadak jasota, negar malkoei eutsi ezinik joan zen aulkira donostiarra. Adio esan zion futbolari une horretan, eta Anoetan bildutako jarraitzaileak zutitu ziren egiatarrari adio esateko.

Futbol jokalaria ez ezik, IRUTXULO KO HITZAKO kolaboratzailea ere izan da hainbat urtez, taldearen partiden berri emanez.



Sito Alonso entrenatzailea, hutsarte batean. GIPUZKOA BASKET

↓ Gipuzkoa Basket

## Zerutik infernura, hilabete gutxian

2011-2012 denboraldia historikoa izan zen Lagun Aro Gipuzkoa Basketentzat. Lehen aldiz bere ibilbidean, Espainiako Kopa jokatze eta Ligako titulua eskuratze eta play-offetarako txartelak eskuratu zituen, eta kanporaketa horietan estu hartu zituen aurka-

riak. Lan bikaina egin zuten Sito Alonso entrenatzaileak gidatutako jokalariek, baina hilabete batzuk geroago, denboraldi berriaren hasierarekin, jaitsiera ekiditeko borrokan bete-betean sartuta dago taldea; lehen postuetatik urruti.

Joan den sasoiko hiru jokalaria onenek Gipuzkoa Basket utzi dute; Andy Pankok, Sergi Vidalek eta Jimmy Baronek. Horrenbestez, taldea erabat ahulduta geratu da, ekarritako jokalariek ez baituzte hutsune horiek bete.

Momentuz, bereak eta bi pasatzen ari da Lagun Aro, eta hurrengo hilabeteetako patua horixe izango dela dirudi. Egoera ekonomikoa ere ez da onena; Europan jokatze txartela eskuratu arren, eskubide horri uko egin zion klubak diru faltagatik.



Jaume Leiva irabazlea, helmugan. FORTUNA

↓ Behobia-Donostia

## 21.470 korrikalari

Gaintzurizketa eta Mirakruzeko gainei ez ezik, euriari eta hotzari ere aurre egin behar izan zieten aurtengo Behobia-Donostia herri lasterketan parte hartu zuten korrikalariek. Guztira, 21.470 laster-

kari iritsi ziren Bulebarrean egokitutako helmugara; horrenbestez, Fortuna elkarrekin marka berri bat ezarri du parte hartzaile kopuruari dagokionez.

Helmugara iritsi ziren lagunen artean bi milatik gora donostiar zenbatu zituzten. Irabazlea Terrassatik etorritako Jaume Leiva izan zen, 1 ordu, 1 minutu eta 33 segundorekin. Emakumeen artean, Oihana Kortazar elgetarra izan zen azkarrena, 1 ordu, 14 minutu eta 45 segundorekin.

Donostiar azkarrena Mikel Albeniz izan zen. Egitarra ezaguna da herri lasterketen munduan, txapel asko bereganatu baititu azken urteetan, horietako batzuk hiriko eta inguruko probetan; Altzako Herri Bira, Loiolako Krosa eta Sudur Krosa, besteak beste, bere garaipen-zerrendan daude. 28. postuan sailkatu zen Albeniz, 1 ordu, 7 minutu eta 19 segundorekin. Marka bikaina egin zuen, bere denborarik onena Behobia-Donostian. 2010ean egindako markarik onenarekin alderatuz gero, ia bi minutu gutxiago behar izan zituen.

**JUANXO**  
ESPEZIALITATEAK:  
OGITARTEKOAK,  
BANDERILA  
BERO eta HOTZAK  
Enbeltran kalea, 6 • Tel.: 943 42 74 05 • DONOSTIA

**ANTIGUO** autoeskola  
Teorikoa euskaraz ere  
Mikelete pasealekua 20 943-21 65 51 ANTIGUA  
Tolosa hiribidea, 15 943-10 60 94

**MAPFRE**  
LOIOLAKO SUKURTSALA  
ARALAR MENDIA KALEA 25 - LOIOLA (Donostia)

Jaietan ondo pasa!!  
**Trenista**  
Biteri plaza 1  
Tel.: 943 322398 / GROS • DONOSTIA

**LASALA 3 ABOKATUAK**  
Iñigo Iruin eta Luix Barinagarrementeria  
www.lasala3.com  
abokatuak@lasala3.com  
Lasala plaza 3 printzipala • DONOSTIA 943 433 172

**GARIKANO**  
ZAPATA DENDA  
Sarriegi plaza, 7 • 943-42 34 69 • DONOSTIA



Richard Oribe, erdian, udalako egindako harreraren. UDALA

## Richard Oribe

# Bi domina gehiago lortu ditu Londresen

Donostiako Udalak harrera egin zion urrian Richard Oribe igerilariari, Londresko Paralinpiar Jokoetan lortutako emaitza onengatik, eta orohar, kirol ibilbide apartarengatik zorionak emateko. Juan Karlos Izagirre alkateaz gain, udal talde politiko guztietako zinegotziak izan ziren harreraren.

1992. urtetik hona, sei Paralinpiar Jokotan parte hartu du. Horietan, urrezko 8 domina, zilarrezko 6 eta brontzezko 2 lortu ditu. Azkenak, zilarrezko eta

brontzezko bana, aurtengo Londresko jokoetan. Gainera, nazioarteko beste txapelketa askotan ere lehiatu da, eta horietan ere dozenaka domina lortzeaz gain, hainbat marka hautsi ditu. Igeriketa bere kirol kutunena da, eta gogor entrenatzen du egunero. Hala ere, beste kirol batzuk ere egiten ditu, adibidez: atletismoa, txirrindularitza eta futbola.

Oribek Udalak egindako harreraren eskertu, eta indar handia ematen diola esan zuen: «Kirol maila honetan, asko bidaiatu be-

har da, entrenamendu gogorak egin eta komunikabideek askotan ez dute behar bezala islatzen domina bat lortzen dugunean. Horregatik, herritarren babesa jasotzea eta horrelako ekitaldiak egitea, udaleko agintari nagusia eta udalbatza oso bertan daudela, asko eskertzen ditut», adierazi zuen egindako harreraren.

Ekitaldira Londresen irabazitako bi dominak eraman zituen. Alkateak plaka bat eman zion antiguatarrari, bere ibilbidearen aitortpen gisa.

Egun batzuk geroago, beste eskertza bat jaso zuen Oribek; 2012ko Lan Onari saria, hain justu, Eusko Jaurlaritzaren eskutik.



Fortunako presidentea, Urrezko Danborraren erdian. NEREA LIZARRALDE

## Fortuna

# Urrezko Danborra eman diote

Urrezko Danborra Fortunako presidente Enrique Cifuentesek jaso zuen joan den urtarrilean, San Sebastian egunean, elkartearen izenean. Ehun urte bete berri dituen elkarteak antolatzen du Behobia-Donostia herri lasterketa. «Behobia-Donostiaren historiako egunik garrantzitsuena da gaur», esan zuen Cifuentesek, urrezko danborra eskuan zuela. Antolatzaileak eskertu zituen Cifuentesek berak,

«erakutsitako ilusioarengatik; nabaritzen da lasterketa gustatzen zaiela, bestela ez zen hain ondo irtengo».

Atletak –zendutako Diego Garcia, besteren artean– eta lasterketa errepide bazterretik babesten duten ikusleak ere eskertu zituen. Azken hauek Behobia-Donostiaren azken kilometroa «mitiko» bihurtu dutela nabarmendu zuen, jendetza biltzen baita Donostiaren sarreran.

Juan Karlos Izagirre alkateak hitza hartu zuen ekitaldian, Behobia-Donostia goraiatzeko. «Elkartasuna eta borondatezko lana sustatzen du herri lasterketak», adierazi zuen.

Hori esan eta gero, eta Urrezko Danborra banatuta, Fortuna elkarteak lagunak alkateari berari Behobia-Donostiaren kamiseta bat oparitu zioten eskertza moduan, «korrika egin dezan».

2 urtetik 16 urtera bitarteko kristau heziuntza-proiektua

**HH LH DBH BTX**

D ereduek • Ingelesa 4 urtetik aurrera

Pedagogi berriluntza-programak • Zehitzu-erakundeak

Jarqeta: eskola eta sozialde propioak

Garrantzi publiko: Enkaino, kalitate, erakundeak

**La Salle**  
Donostia

Lotolés auzoa • www.lasalledonostia.com • 943 954100 • e-posta: donostia@lasalle.es

**LEJARRETA**  
SEGURIDAD, S.L.

- MOTA GUZTIETAKO GILTZA ETA SARRAILAK
- SEGURITASUN KUTXAK
- SARBIDE KONTROLA

Ramon Maria Lili, 3  
20002 Donostia

Tel.: 943 271 814 • www.lejarreta.com

**Miki argazkiak**

AFIZIONATUEN LANAK  
ESKONTZAK  
BATAIOAK  
ARGAZKIAK ETXEAN  
BERTAN

MATIA, 3 • Tel.: 943 21 47 03  
DONOSTIA

Egin HITZAren harpidedun...

...abenduaren 31 baino lehen eta jaso

**Mahala baserriko produktuez osatutako saski ederra...**

...opari

**eta...**

... HITZAren harpidedunen artean

**PORTUGALEN egiteko bi pertsonentzako zirkuitua zozkatuko dugu**

**OVET Urraki**  
Bilaketa eta erakundeak  
www.urrakibidaia.com

harremanetarako: 902 82 02 01 / harpidetza@hitza.info

**hitza**

IRUTXULOKO HITZAK egitasmo berri bat jarriko du abian urtarriletik aurrera; papereko produktua astean behin argitaratuko du eta internet astelehenetik igandera egongo da lanean.

# Astekaria eta Internet, euskarri

Aritz Sorzabal

Urte asko daramatza Donostiako euskalgintzak bertako euskarazko informazioa ematen duten komunikazio proiektuak lantzen. Hauen artean, Donostiako euskaldunei bertako informazioa euskaraz eskaintzeko asmoz 2005ean sortu zen IRUTXULOKO HITZA. Dagoeneko ia zortzi urte igaro dira orduz geroztik.

Urte hauetan guztietan nahi baino arazo gehiago sortu izan da. Krisi ekonomikoaren eta hedabideen eredu krisiaren eraginez, hainbat aldaketa eta egokitzapen egin behar izan ditu IRUTXULOKO HITZAK. Aurrerantzean ere egin beharko ditu, komunikazioaren esparruan aldaketa etengabea baita. Horrenbestez, 2013an proiektu berri jarriko du abian. Urte hasierarekin gauzatu den egitasmoaren helburua euskarazko informazioaren esparruari eustea da, hizkuntza normalizazioaren bidean hedabideena sektore estrategikoa delako.

Horregatik, aurrera begira jarri nahi du egunkariak. Proiektu honek badu etorkizuna. Komunikazio joera berriei erreparatu eta hauek gurera egokituz Donostiako euskaldunentzat ahalik eta proiektu sendoena egin nahi du IRUTXULOKO HITZAK.

Duela zenbait hilabete, egunkaria astean sei egunez argitaratetik lau egunetan argitaratzen hasi genuen. Hala ere, kaltea izan zitekeena mesede bihurtzea lortu dugu, harpidedunen eta irakurleen beharrei dagokienez. *Itzurun* gehigarria sortu genuen lehenik; *Gipuzkoako Hitza* etorri zen geroago; eta internet ataria indartu dugu 2012an, unean uneko albiste, irudi eta bideoekin, eta sare sozialetan presentzia bermatuz.

Aldaketa gehiago etorri ziren irailean, baina berezitasun krudel batekin; lehen aldiz, lan taldean izan zuten eragina. Izan ere, IRUTXULOKO HITZAK bi langile gutxiago ditu orain. Baina, egoera zailetatik indartuta ateratzeko printzipioari berriro helduta, egitasmo indartsua prestatu dugu datorren urterako, galdu baino,

harpidedunek zein irakurleek irabaz dezaten.

Egitasmo horren oinarriak finkatuta daude dagoeneko: IRUTXULOKO HITZA astekaria bihurtuko da urtarrilaren 2013tik aurrera eta interneteko ataria asteleheneetik igandera aktibo egongo da, atsedenek gabe. Apustu handia da, langile gutxiagorekin, presentzia areagotuko dugulako eguneroan; larunbatetan eta igandetan izango gara, esaterako.

## Ikusteko eta entzuteko

Internet IRUTXULOKO HITZAREN erroka izan da 2012 urte hasieratik, eta apustuari segida emateak zentzu handiagoa izango du orain, teknologia berriek paperei tartea kentzen dioten honetan. Lan taldea goitik behera aldatuko dugu funtzioei dagokienez; lau kazetari ez ezik, bi pertsona ere izango ditugu bidegintzan lan egiten.

Helburua argia da; unean uneko albisteak zintzilikatzeaz gain, hirian gertatzen dena ikusteko eta entzuteko aukera emango dugu. Gure balio erantsia, lehen aipatu bezala, astelehenetik igandera egongo garela izango da. Beste balio erantsietako bat, zalantzarik gabe, gure izaera da; ez dugu lehiakiderik hainbat gaietan. Besteek ematen ez dutena edo modu laburrean ematen dutena, guretzako albiste da.

Auzoek, jaiek, herritar arruntek eta elkarteek sortzen dituzten albisteei buruz ari gara. Erreferente izan behar dugu horretan. Dena da albiste guretzako, beti ere helburua herritarrei aho-tsa ematea bada.

Txoko guztietara heltzeko prest gaude, orain arte iritsi ez garen horietara ere. Nola? Sare sozialen bitartez. Hain zuzen ere, teknologia berrien gizarte honetan herritarren kopuru handi bat internetera konektatuta bizi da. Kanean fisikoki dagoen moduan, interneten birtualki dago.

Sare sozial horiek, Facebook eta Twitter batez ere, komunikabideen oinarria bihurtu dira gauetik goizera, eta IRUTXULOKO HITZAK ere bide hori jarraituko du, donostiarren mesedetan.

oasorzabal@hitza.info



IRUTXULOKO HITZAREN ale bat. MIKEL GOÑI



Tontorgoxo, 18

© 943 21 03 07 / 943 31 69 77 - Faxa: 943 21 96 83  
ikastola@ekintza.org • www.ekintza.org

«HEZKUNTZA herrian sustraitua,  
unibertsora irekita, ASKATASUNA DA»



• EGUNKARIAK • ALDIZKARIAK  
• LIBURUAK • PAPERAK  
• BULEGORAKO ARTIKULUAK

Matia kalea, 44  
Antigua - 2008 Donostia  
Tel.-faxes: 943 21 72 83  
garazi@garaziliburudenda.com  
www.garaziliburudenda.com